

Diglosia eta endodiglosia arnasguneetan. Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasuna eta erabilera-ohiturak: euskara eta gaztelania; batua eta tokiko euskara

Diglosia y Endodiglosia, en las zonas donde prevalece el uso del euskera. Competencia lingüística de los adolescentes ondarreses y costumbres de uso: euskera y castellano, batua y habla local

Diglossie et Endodiglossie dans les zones à basque dominant. La compétence linguistique et les habitudes d'usage des adolescents d'Ondarroa: basque et castillan, basque unifié et basque local

Diglossia and endodiglossia in Basque language speakers majority areas. Language skills and usage habits amongst teenagers in Ondarroa: Basque and Spanish, standard and local Basque

NAVASCUÉS BASTERRA, Mikel
Psikologoa eta irakaslea

IURREBASO BITERI, Iñaki
Soziologoa eta irakaslea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2020-01-31
Noiz onartua: 2020-04-30

Ikerketa honekin arnagune bateko (Ondarroako) nerabeek duten hizkuntza-errealitatea deskribatu nahi dugu, euren errealitatea diglosiaren kontzeptuarekin zein neurritan azal daitekeen aztertzen saiatuz. Gure ahaleginean, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera ohiturak aztertu ditugu, bai euskara eta gaztelaniaren artekoak eta baita euskara batua eta tokiko euskararen artekoak ere.

Metodologia kuantitatiboaren eremutik, inkesta autoaplikatu bat egin dugu, Ondarroako DBH 3ko ikasleen artean. Erabilera eta banaketa soziofuntzionala aztertzeke erabilera-eremu eta rol-harreman desberdinak ezarri ditugu, batzuk informalak eta beste batzuk formalak.

Emaitzek adierazi dute nerabe gehienak euskaraz hobeto moldatzen direla, nahiz eta gaztelaniaz ere ondo moldatzen diren, irakurtzeko orduan batez ere. Erabilera-eremuen azterketari dagokionez, jokabide ezberdindu argia dute nerabeek erabilera-eremuen arabera: oso alde handiak daude euskara-gaztelaniaren erabileran eremuz eremu. Eremu gehienetan euskara nagusi bada ere, gaztelania nagusi da nerabeen kultura-kontsumoan. Hizkuntza bien konpartimentazio soziofuntzionala xehe aztertuta, oro har, badirudi diglosiaren eredu tradizionala lausotuz doala nerabe hauen jokabidean, ezin baitaiteke esan gazteen artean gaztelania goi-mailako erabilera formalean erabiltzen denik gehienbat, eta ezta nagusiki euskara behe-mailako eremu informaletan erabiltzen dutenik ere.

Bestalde, tokiko euskararen eta euskara batuaren arteko harremanari dagokionez, nerabeak tokiko hizkeran aritzen direla eta euskara batuaren erabileraren ehunekorik altuenak eremu formaletan daudela ikusi dugu. Endodiglosia egoera baten hasiera izan liteke agian. Gainera, tokiko hizkeran eta euskara batuan duten gaitasunari begiratuta, nerabeen parte handi batek batuaz hitz egiteko zailtasunak adierazi ditu. Azkenik, eta zeharka bada ere, Ondarroako nerabeek tokiko euskararekiko duten balorazio altua agerian geratu da ikerketa honetan.

Gako-hitzak: hizkuntza-gaitasuna, diglosia, arnaguneak, erabilera, erabilera-eremuak.

El objetivo de este estudio es describir la realidad lingüística de los adolescentes de un *arnagune* (Ondarroa), tratando de analizar en qué medida se puede explicar dicha realidad mediante el concepto de diglosia. Para ello, se han estudiado la competencia y los hábitos de uso lingüísticos, tanto entre el euskara y el castellano, como entre el euskara batua y la variante local.

Mediante una metodología cuantitativa, se ha realizado una encuesta autoaplicada entre el alumnado de 3º de ESO de Ondarroa. A la hora de estudiar los usos lingüísticos y la compartimentación sociofuncional se han establecido diversos ámbitos de uso y roles, algunos informales y otros formales.

Los resultados muestran que la mayoría de adolescentes se desenvuelven mejor en euskara, si bien también muestran ser competentes en castellano, principalmente en la competencia lectora. En lo que respecta al análisis de los ámbitos de uso, puede verse una conduc-

ta diferenciada en los adolescentes: hay una gran diferencia entre los usos del euskara y del castellano dependiendo de los ámbitos estudiados. Aunque el euskara sea dominante en la mayoría de los ámbitos, el castellano impera en el consumo cultural de los adolescentes. Por otro lado, analizando la compartimentación sociofuncional de los usos, puede observarse que la conducta de estos adolescentes no se ajusta al modelo tradicional de diglosia, ya que no se puede afirmar que usen el castellano principalmente en ámbitos formales, ni que utilicen el euskara mayoritariamente en los ámbitos informales.

En cuanto a la relación entre el habla local y el euskara batua, se aprecia que los adolescentes usan principalmente el habla local y que los porcentajes más altos de uso del batua se observan en los ámbitos más formales. Los datos recabados sugieren que podríamos estar al inicio de un proceso conducente a una situación endodiglosica. Además, observando la competencia que muestran en cada variante del euskara, los resultados muestran que una gran parte de los adolescentes presenta dificultades para hablar el batua. Por último e indirectamente, ha quedado patente la alta valoración que recibe el habla local por parte de los adolescentes de Ondarroa.

Palabras clave: competencia lingüística, diglosia, ‘arnasgune’, usos lingüísticos, ámbitos de uso.

L’objectif de cet étude est de décrire la réalité linguistique des adolescents appartenant à un arnasgune (Ondarroa), en essayant d’analyser en quelle mesure peut cette réalité-là être expliquée par le concept de diglossie. Pour cela, on a étudié la compétence et les usages linguistiques, soit entre le basque et l’espagnol, soit entre le basque standard et la variante locale.

Par le biais d’une méthodologie quantitative, une enquête auto-appliquée a été dispensée entre les élèves de 3^{ème} cours d’Éducation Secondaire de Ondarroa. Afin d’étudier les usages linguistiques et la compartimentation socio-fonctionnelle, des divers domaines d’utilisation et rôles ont été établis, certains informels et certain d’autres formels.

Les résultats montrent que la plupart des adolescents se débrouillent mieux en basque, bien qu’en espagnol, ils se montrent également compétents, surtout dans la compétence lectrice. En concernant à l’analyse des domaines d’utilisation, on peut voir un comportement différencié entre les adolescents : il y a une grande différence entre les utilisations du basque et de l’espagnol à chacun des domaines étudiés. Même si le basque est dominant dans la plupart des domaines, l’espagnol règne à la consommation de la culture des adolescents. En plus, en faisant une analyse de la compartimentation de chaque langue, on peut voir que le comportement de ces adolescents n’est pas conforme au modèle traditionnel de diglossie, puis qu’on ne peut pas affirmer qu’ils utilisent l’espagnol principalement aux domaines formels, ni qu’ils utilisent surtout le basque dans les domaines informels.

En ce qui concerne au rapport entre le parler local et le basque standard, on peut constater que les adolescents utilisent surtout la variante locale et que les pourcentages les plus hauts de l'utilisation du basque standard on les voit dans les domaines les plus formels. Les données recueillies pourraient laisser entendre qu'on est au début d'un processus conduisant à une situation d'endodiglossie. De même, en observant les compétences dont ils font preuve par rapport à chaque variante du basque, les résultats montrent qu'une grande partie des adolescents pourrait difficilement parler le basque standard. Finalement et indirectement, la haute évaluation reçue par la variante locale a été manifestée entre les adolescents d'Ondarroa.

Mots-clés : compétence linguistique, diglossie, 'arnasgune', usages linguistiques, domaines d'utilisation.

The aim of this study is to describe the linguistic reality among teenagers from a basque breathing space (Ondarroa), in order to investigate to what extent this reality can be explained by the concept of diglossia. For this purpose, we have studied the linguistic competence and uses, first between Basque and Spanish and then, between the standard Basque and the local speech.

Using a quantitative methodology, we have administered a self-application request among the students of 3rd grade of Compulsory Secondary Education from Ondarroa. With reference to the study of the linguistic uses and socio-functional compartmentalization we have set up some domains and roles, some are informal, and others formal.

The results show that the majority of teenagers does better in Basque, even though, they are also competent in Spanish, especially in the reading competence. In regards to the domain analysis, we can see a contrasting behavior among teenagers: there is a great difference between the Basque and Spanish uses in each of the studied domains. Although Basque is dominant in most of the domains, Spanish reigns in the teenagers' cultural consumption. After the study of functional compartmentalization in each languages' uses, we can observe that the behavior of those teenagers it is not in line with the traditional model of diglossia, as we cannot affirm that they especially use Spanish in formal domains, nor Basque in the informal ones.

Concerning to the relationship between local speech and standard Basque, we can estimate that they use local speech principally, while their highest values of the standard Basque's use can be seen in the most formal domains. The collected data suggest that we could be in the beginning of a process leading to endodiglossia. Further, regarding the competence displayed in each variant of Basque, the results show that most of the studied teenagers experience problems with the standard Basque. Last and obliquely, it is obvious the high appreciation of the local speech received by the teenagers of Ondarroa.

Keywords: linguistic competence, diglossia, breathing spaces, domain analysis.

1. Sarrera

Artikulu hau idatzi baino urtebete lehenago, euskara batua 50 urte bete-tzear zela, Iñigo Martinez futbolariak Realak laga eta Athletic-erako bidea hartu zuen, atzean gutun formako agurra utzita. Gutun hura elebiduna zen, baina berezi samarra, gaztelaniaz eta Ondarroako hizkeran idatzita baitzegoen. Nola liteke euskara hutsean, D eremuan, ikasitako gazte batek gutun publikoa etxeko erara idaztea? Zergatik zegoen gaztelaniazko bertsioa txukun eta zainduta eta euskarazkoa ez?

Galdera horiek buruan, Ondarroan euskararen egoera zein den pentsatzen hasi ginen¹. Alde batetik, Ondarroa arnagunea da, euskararen eta gaztelaniaren arteko lehian, euskarak indartsu eusten dion lekua, eta, bestetik, Ondarroako tokiko hizkera markatua (eta batutik oso desberdina) da. Nerabeengana jo dugu (DBH 3ko ikasleengana) hizkuntza-gaitasunak (euskara-gaztelania eta tokikoa-batua) eta erabilera-eremuak aztertzeraz. Gure helburua Ondarroako nerabeen hizkuntza-errealitatearen argazkia egitea da.

2. Hurbilpen teorikoa

2.1. Hizkuntza-ukipena eta elebitasuna

Munduan dauden hizkuntzak ez dira bata bestearengandik isolatuta bizi, harremanean edo ukipenean baizik. Hizkuntza-komunitate biren artean ukipena egon dadin, hiztunen multzo handiago edo txikiago batek elebiduna izan beharko du: “Bi hizkuntza edo gehiago ukipenean direla esanzen da pertsona berek txandaka erabiltzen badituzte” (Weinrich, 1953 In Coyos, 2010: 135).

Ukipena eta elebitasuna, hortaz, loturik agertzen zaizkigun fenomenoak dira. Elebitasuna gutxienez hiru ikuspegitatik azter daiteke: ukipenean diren

¹ Artikulu honen abiapuntua, EHU-n Mikel Navascuésék Iñaki Iurrebasoren zuzendaritzapean egindako “Euskara batuaren eta euskalkiaren erabilera testuinguruak: Hezkuntza. Ondarroako DBH 3ko ikasleen gaitasunaren eta erabileraren azterketa” Master Amaierako Lana izan da.

hizkuntzen ezaugarri linguistikoetatik, gizabanako-mailatik eta hizkuntza komunitatearen ezaugarri sozialetatik. Hizkuntzen ezaugarri linguistikoetan elebitasunak duen eragina albo batera utzita, argitu dezagun apur bat zertaz ari garen, gizabanako mailan eta maila sozialean elebitasunaz ari garenean.

Gizabanakoaren mailari dagokionez, “Nor da elebiduna?” galderari erantzun ugari eman izan zaizkio soziolinguistikan. Kasurik gehienetan hiztunen hizkuntza-gaitasuna edo erabilera-ohiturak hartu izan dira hiztunak elebidunztat izendatzeko irizpide. Erabilerrari dagokionez, Grosjean-en arabera, elebiduna eguneroko jardunean hizkuntza biak erabiltzen dituen da: “le bilinguisme est l’utilisation régulière de deux ou plusieurs langues ou dialectes dans la vie de tous les jours” (2015: 16). Autore honek dioenez, gehienetan erabilera-eremu batzuk Hx hizkuntzan garatuko ditu elebidunak, beste batzuk Hy-n eta izango dira hizkuntza batean zein bestean garatuko dituen eremuak ere.

Gaitasunaren ikuspegitik, oro har elebidun esan ohi zaio, hizkuntza bietan aritzeko gaitasuna duen hiztunari. Baina eztabaidagai da hizkuntza bi horietan aritzeko zein maila eskatu behar zaion, hizkuntza bietan ondo eta maila bertsuan aritu behar ote duen, adibidez, ala bietako batean maila apalagoa izanda ere elebidun izendapena egokitzen ote zaion (Baetens Beardsmore, 1989). Oro har, ikertzaileek onartzen dute oso kasu bakanetan ematen dela hizkuntza bi maila berean menderatzea. Egoerarik arruntena, hizkuntza bi jakin eta erabiltzen dituztenen artean ere, hizkuntza horietako batean nagusitasuna izatea izan ohi da.

Gaitasun hori, gainera, ez da dimensio bakarrekoa. Oro har, oinarritzko lau trebetasun aipatu izan dira²: ulermena (hizkuntza entzunda ulertzea), hitz egiteko gaitasuna, irakurtzeko gaitasuna eta idazteko gaitasuna (Baker, 1997: 31). Lau gaitasun horiek, halaber, multzokatze biren bitartez sailkatu izan dira:

- Batetik, ahozko-idatzizko irizpidea aintzat hartuta: ahozko gaitasunari buruzkoak dira ulermena eta hitz egiteko gaitasuna; idatzizko gaitasunari (*literacidad*) dagozkio irakurtzeko eta idazteko gaitasunak.

² Lau gaitasun horiei, bosgarrena ere erantsi izan zaio: hizkuntza horretan pentsatzea. (Baker, 1997: 35).

- Bestetik, hartze-ekoizte irizpidean oinarrituta: hizkuntza hartzeari dagozkion gaitasunak dira hizkuntza ulertzea eta irakurtzeko gaitasuna; eta hizkuntza ekoizteari dagozkionak beste biak (hitz egitea eta idaztea).

Litekeena da, hortaz, lehen aipatzen genuen nagusitasuna ezberdina izatea trebetasunak aintzat hartuta. Adibidez, hitz egiterakoan Hx hizkuntzan moldatzea hobeto, baina idazterakoan Hyn moldatzea hobeto.

Bestalde, arrunta da elebidunek gaitasun-maila ezberdindua izatea gizarte-bizitzako alor (*domain*, jardungune, erabilera-eremu) ezberdinetan. Oro har, gaitasuna erabilera-maiztasunarekin garatzen delarik, arrunta da elebidunak hobeto moldatzea Hx hizkuntzan hizkuntza horretan komunikatu izan diren eremuetan eta hobeto moldatzea Hy hizkuntzan nagusiki edo soilik bigarren hizkuntza horretan komunikatu izan diren jardunguneetan (Grosjean, 2015).

Hizkuntza baten jabekuntza, prozesu soziala izanik ere, hizkuntza batean hitzunak duen gaitasuna gizabanakoaren ezaugarri psikologiko-kognitiboa da. Gaitasun hori dinamikoa da, eta, beraz, aldakorra pertsonaren bizitzaren fase ezberdinetan (Grosjean, 2018: 9).

2.2. Diglosia eta endodiglosia

Elebidun hitza, baina, ez zaie gizabanakoei soilik aplikatzen eta hizkuntza bi partekatzen dituzten gizarteak izendatzeko ere erabiltzen da: “una comunidad bilingüe se podría definir como aquella en la que se hablan dos lenguas o en la que todos sus componentes o una parte de ellos son bilingües” (Moreno Fernández, 2009: 211).

Hizkuntza-komunitateari begiratuta, elebitasun sozialaren fenomenoak *diglosia* izena hartu du kasu jakinetan³. Izan ere, elebitasunak esanahi asko

³ Elebitasun sozialeko kasu guztiak biltzen dituen hiperonimo gisa, *multilingual community* erabiltzen da maiz (Kloss 1969). *Multilingual community* guztiak ez dute diglosiarik: elebitasun sozial guztiak ez dira diglosia. Modu bateko elebitasun soziala (bereziki Ferguson-ek edo Fishman-ek zehazturiko ezaugarri-sorta) ageri duten gizarte elebidunetan, ez gainerakoetan, esaten da diglosia dagoela.

eduki ditzake eta, gizabanako mailan gertatzen den fenomeno izanda, “elebitasunaren antolaketa makrosozialerako” (Vila eta Boix, 1998) beste termino baten premia azaltzen da. Halaxe iruditu zitzaion, behintzat, Fergusoni (1959) historian zehar etenaldiz betetako erabilera izan zuen “diglosia” berba berreskuratu zuenean.

Fergusonek diglosiari buruz emandako jatorrizko azalpena hizkuntza beraren aldaeren arteko banaketa aski egonkorrean oinarritzen da. Erabilera-eremuetatik abiatuta, goi-mailako funtzioak betetzen zituen aldaera bat eta behe-mailakoak betetzen zituen beste bat deskribatu zituen (Ferguson, 1959).

Diglosia dagoenean, beraz, adiera biak *L* (*Low*, azpikoa) eta *H* (*High*, gainekoa) gainjarrita daude lurralde berean eta bakoitzaren erabilera-eremua osagarria da (Ferguson, 1959). Erabilera-eremuen banaketa horri konpartimentazio soziofuntzionala esaten zaio, eta banaketa hori diglosiaren funtsa dela esan genezake. Egoera horren hainbat funtsezko ezaugarri aipa daitezke (Zalbide, 2011: 41-52):

- Funtzioari dagokionez, aldaeren arteko gainjartzea txikia da eta bakoitzaren erabilera-eremuak mugatuak egon ohi dira. Oro har, *L* aldaera herri-hizkerari dagokio eta transmisio naturalez (etxean eta komunitate hurbilean) jaso ohi da. *H* ere hiztun-elkartearen aldaera da, baina eremu formalagoetan (eskola bidez nagusiki) eskuratu ohi da.
- Banaketa hori aski egonkorra da. Ferguson-en arabera, “a relatively stable language situation”⁴.

⁴ “relatively” hori justu zenbat den, ez da zehazten erraza. Honela dio Fergusonek definizioaren 6. puntuan: “it might be supposed that diglossia is highly unstable, tending to change into a more stable language situation. This is not so. Diglossia typically persists at least several centuries, and evidence in some cases seems to show that it can last well over a thousand years”. (Ferguson, 1959: 332 or.) Honela azaldu izan du Kloss-ek, alemanez, definizio hori: “Diglossie im Sinne Fergusons kann definiert werden als der **seit Generationen domänenweise abgegrenzte Gebrauch** zweier nah verwandter Sprachformen (...)”. Nola mugatu Kloss-en “seit Generationen” hori? Fishman-ek, galdera horri erantzunez, gutxieneko epe-muga operatiboa ezarri izan dio egonkortasun-eskemari: **gutxienez hiru belaunaldi** dirauen hizkuntza-egoera situazio egonkortzat hartu liteke. (Letrakera lodia geurea).

- Aldaerek antzekotasun genetikoa dute, baina ezberdintasun ugariak dituzte. Aldaera bat ezagutze hutsak ez dakar bestea ulertzea.
- Herentzia literarioa dauka *H*-k, bai lehen, bai orain bertan daukan ekoizpenean. *H* aldaera da prestigioduna, berari atxikitzen zaio zuzentasunaren ideia.
- *H* aldaera landuagoa da, jarduera jasorako gaituagoa eta gramatika konplexuagokoa. Lexiko aldetik ere, berba teknikoak *H* aldaerari dagozkio, *L* aldaera beste eremu batzuetara mugatuta utziz: etxeke, lagun-giroko, harreman informal hurbilekoetara.

Fergusonen diglosian oinarrituta, Fishmanek kontzeptuaren adiera zabaldu zuen, hizkuntza bereko aldaera bien arteko banaketa soziofuntzionalari ez ezik, bi hizkuntzen artekoari ere aplikatuz. Haren iritziz, diglosia eta elebitasuna ez dira fenomeno bera, baina aldi berean gerta daitezke. Nolabait esatearren, elebitasuna hitzunei dagokie eta diglosia hiztunok osatzen dugun komunitateari (Zalbide, 2011: 46). Gaur egun, Fergusonen jatorrizko ereduak barne-diglosia edo endodiglosia azaltzeko erabiltzen da (Vila eta Boix, 1998 eta Coyos, 2010) eta Fishmanena kanpo-diglosia edo exodiglosia azaltzeko.

Fishmanen ereduak diglosiari emandako zentzu berria asko erabili izan da hizkuntza ahulduen egoerak aztertu izan dituzten ikerlarien artean. Fishmanek hiru ekarpen nagusi egin zizkion Fergusonen oinarritzko deskribapenari, Zalbideren (2011) arabera:

1. Diglosia fenomeno soziala da, eta banaketa soziofuntzionala du ardatz nagusia. Fergusonen hitzetan *language situation*, Fishmanen esanean *societal arrangement*. Hizkuntzen erabilera-eremuen (*domain*-en Fishmanen hitzetan, jardunguneen Zalbideren itzulpenean) azterketa soziala egiteko aukera ematen du.
2. Diglosiak ezaugarri psikolinguistikoa dauka: hizkuntza-komunitateko gaitasuna desberdina da hizkuntza bakoitzean. Horrez gain, aldaera bakoitza eskuratzeko bidea desberdina da. Alde batetik, aldaera egunerokoa da, etxekeoa eta bizia –Zalbideren hitzetan, *gatz- eta piperduna* (Zalbide, 2011, 2019)– eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da;

bestetik, *H* aldaera soziala da, beranduagokoa, eta bigarren mailako sozializazioan (eskola bidez nagusiki) eskuratzen da.

3. Diglosiak ezaugarri ebaluatiboa dauka. Hau da, *H* aldaerak duen balorazioa eta estatusa *L* aldaerak duena baino hobea da.

Diglosiari dagokionez, euskararen eta erdaren arteko harremana azterterakoan, diglosiaren jatorrizko esanahitik aldendu egin izan da Euskal Soziolinguistika, hizkuntza gutxituen ikerketan gatazkaren paradigmak izan duen eraginaren ondorioz (Zalbide, 2011). Gatazkaren paradigmatik egingako ekarpen horietan dugu “ideologia diglosiko” (Garí, 1990: 57-58), “diglosia glotofagiko” (Sánchez Carrión, 1974) eta antzeko ideien jatorria. Gatazkaren paradigmaren baliagarritasunari lepoa eman gabe, lan honetan Fergusonen eta Fishmanen diglosiaren esanahia landu dugu, Ondarroako nerabeen egoeraren azterketa sinkronikoa izan delako helburua, garapena aztertzea baino gehiago.

2.3. Diglosia eta endodiglosia Euskal Herrian

Gorago esan bezala, diglosiaren jatorrizko definizioak (Ferguson, 1959) hizkuntza beraren aldaera bi kontrajartzen ditu. Ahaidetasun horretatik haratago eraman du Fishmanek (1967) diglosiaren ideia, hizkuntzen artean ere diglosia egon zitekeela azalduz. Harrezkero, hizkuntza baten aldaeren arteko diglosia *endodiglosia* izendatu izan da eta hizkuntza desberdin biren arteko diglosia, *exodiglosia* (Zalbide, 2011: 84).⁵

Kontzeptu horiek gurera ekarriz, euskara batuaren eta tokiko hizkeren arteko harremanean, euskara batuak *H*-ren lekua hartzeko asmoa du (hartarako sortu zen partez bederen), bere oinarrian den erdialdeko euskalkiarekin batera. Diglosiaren eredu klasikoan, euskararen eta erdaren artean, aldiz, erdarek *H* aldaera osatzen dute eta euskarak *L* aldaera. Hala ere, endodiglosiaz berba egiten dugunean, non dago hizkuntza barneko diglosiaren eta dialekto-estandar harremanaren arteko muga kontzeptuala? Galde-

⁵ Ez dira termino bakarrak. Iturrietara jo nahi balitz ikus *in-diglossia* eta *out-diglossia* (Kloss 1969), *Binnendiglossie* eta *Ausendiglossie* (Besch 1975, Kloss 1976) eta abar.

ra hori bera egin zion bere buruari Mikel Zalbidek (2011: 44) eta hainbat adibide ipini arren, erantzunik ez zela ondorioztatu zuen, diglosia eta dialekto-estandar harremana parekatuz, azkenean. Harreman hori aztertzeko saiakera egin du berriki Coyos-ek (2018) euskara batuak Iparraldean duen harrera aztertzeko. Pertzepziozko dialektologiatik egin du azterketa autoreak, hiztunak informazio-iturri erabilgarria izan daitezkeela erakutsiz.

Endodiglosiak gurean izan ditzakeen zantzuak aztertzeko, fenomenoaren alderdi ebaluatiboa, aldaera bakoitzak duen balorazioa, landu izan da. Hala, Zuazoren (1992, 2001) lanera joz, euskararen aldaeren estatusa baldintzatzaren duten jarrera eta iritzien gorabeherak ikusiko ditugu. Nagusitasunari dagokionean, Iparraldea eta Hegoaldea bereizten ditu, Iparraldean kostaldeko lapurterak eduki izan duen entzutea aipatuz eta Hegoaldean beterriko gipuzkeraren abantaila azpimarratuz (Zuazo, 1992). Autore berak aurreiritzi linguistiko izendatzen duen fenomeno gertatzen da, bere berbekin esanda, “Hiztunik arruntenak ere, hierarkia argia somatu uste izango du. (...) ‘Lilurak’ eraginda prestigiodun hori erabiltzen ahaleginduko da, bestea, zenbait esparrutan, behinik behin, baztertu eta bertan behera utziko duelarik.” (Zuazo, 1992: 38).

Zuazok bizkaierak jasandako estigma du hizpide eta sasoiaren arabera mendebaldeko euskalkiaren estatus baxua (Fergusonen *L* aldaera) argudio ezberdinen pean gertatzen dela azaltzen du. Batetik, XVIII. mendean, euskalkiak elkarriz mokoka zebiltzan garaian, bizkaiera zakar eta baldartzat jotzen zutenak zeuden. Bestetik, XX.era etorrira, zakar eta baldar izateaz gainera, bizkaieradunen euskara zaila eta ulergaitza dela esaten zutenak azaldu ziren (Zuazo, 1992).

Berba zehatzak darabiltza Zuazok testu berean, Euskal Herrian endodiglosia egoeran gaudela esaten duenean. Hala ere, erdialdeko euskararen eta Hegoaldeko gainerako aldaeren arteko norgehiagokatik harago, esan ote genezake Batua / mendebaldekoa diglosiaren aurrean gaudenik?

Horretarako, italiarren estandarizazioari begiradaxo bat eman diezaiokegu, haien *questione della lingua* aspalditik delako eztabaidagai popularra. Italiara “batua” sortu eta sendotzeak arazo nabarmenak ekarri dizkie italiarra-hiztunei, *selva dei dialetti* (Mioni eta Arnuzzo-Lanszweert, 1979) hartan

kontsentsua lortzea latza bezain ezinezkotzat joaz. Harira joanez, italiara estandarren jatorrian toscaniera dago. Historia eta etorri literarioa duen aldaera izanik, zalantza gutxi izan zuten estandarra Toscanako dialektotik hartzeko. Italia bateratu eta herrialde berria sortzeak lehenengo, eta faxismo garaia gero, italiara estandarra hedatu zuten (Mioni eta Arnuzo-Lanszweert, 1979). Autore italiar horien proposamenen endodiglosiaren norabidea argia da, dialeктоaren elebakartasunetik estandarren elebakartasunerako joera aipatzen dute, hots, ordezkapena ikusi daiteke. Gatazkan oinarritutako paradigmatic edanez (Juaristi, 2019), diglosia (endodiglosia) ordezkapen-prozesuaren fase gisa irudikatzen dute autoreek.

Euskararen aldaeren arteko banaketa soziofuntzionalari dagokionez, oraindik ere ezarri gabe daude aldaera bakoitzaren muga eta erabilera-eremuak, tokiko hizkerak euskara batuarekin duten harremanean ikus daitezkeenak. Mugak argitu gabe edukitzeak, banaketa soziofuntzional orekatu eta iraunkorra zaildu egiten du, eta ikasleek erregistro edota aldaera egokia erabiltzeko oztupoak aurkitu ditzakete. Euskalkiaren eta batuaren arteko gurutzatzea saihesteko Zuazok *Euskararen sendabelarrak* liburuan konpartimentazioa proposatu zuen, izen hori ipini ez zion arren, aldaera bakoitzari bere eremuak emanez (Zuazo, 2001: 171-181):

- Aisialdian, euskalkia eta horren lagunarteko hizkera erabiltzea proposatzen du.
- Irakaskuntzan, hiru maila bereizten ditu:
 - Haur Hezkuntzan, ahozko jarduna nagusi den sasoiari, herriko hizkeran jardutea proposatzen du.
 - Lehen Hezkuntzan, tokiko batua menderatzera ailegatu beharko lirateke ikasleak.
 - Bigarren Hezkuntzan eta hortik aurrerako prestakuntzan, euskara batua izango litzateke eredia.
- Lan arloan, kanpora begirako komunikazioan (idatzizkoan, besteak beste) euskara batua erabiltzea proposatzen du. Ahozko jardun formalerako, tokiko batuari uzten dio lekua.

- Herri hedabideetan, tokiko batua edo euskalki jaso (horien bien arteko desberdintasuna zaila izan daiteke batzuetan) eta ahozko jardueran herri hizkera tartekatzeke aukera proposatzen ditu.
- Administrazioan, euskara batua proposatzen du.
- Literaturan, erabilera-eremu berezia denez, sortzailearen esku uzten du erabakia.

Euskararen aldaeren arteko banaketa soziofuntzionala ezartzeak berebiziko garrantzia izan dezake, euskara nagusi duten eremuetan bereziki.

2.4. Arnasguneak

Ukipenean dauden hizkuntzen banaketa geografikoa ez da homogenea. Leku batzuetan hizkuntza batek beste hizkuntzak baino funtzio eta erabilera-eremu gehiago izan ditzake bereganatuta. Hizkuntza gutxituen kasuan, *L* aldaera nagusi den eremuei arnasgune esaten zaie euskaraz (Zalbide, 2019), Fishmanen “*Breathing space*” terminoaren ordain gisa. Arnasguneak esaldi batean biltzeko, Fishmanen berbak dakartza Zalbidek: “*demographically concentrated space where X-ish can be on its own turf, predominant and unharassed*” (Fishman, 1991 In Zalbide, 2019: 18).

Horrela, euskara jaun eta jabe den eremua da arnasgunea, kanpotiko inolako derrigortasunik gabe euskaraz diharduena, “eremu geoterritorial segurua”, Zalbideren (2019: 19) berbetan. Testu berean, autoreak arnasguneen honako ezaugarri hauek azpimarratzen ditu (Zalbide, 2019: 20-30):

- Euskal kontzentrazio demografiko handia du arnasguneak: euskaraz dakite bertako herritar guztiek edo gehienek eta eguneroko jardunean euskaraz mintzo dira.
- Arnasgune barnean berbetan ari direnean, euskara da nagusi, beste edozein hizkuntza tartean nabarmen sartu gabe. Euskaraz berba egitea arau inplizitua da.
- Euskararen transmisioa bermatuta dago belaunaldiz belaunaldi.

- Etxean, eskolan, kalean eta aisialdian euskaraz mintzo dira arnasmuneetako biztanleak eta, ahal duten heinean, lanean ere bai. Molde horrek pitzadurak jasan ahala, arnasmunea eraldatuz joango da.

Zalbidek dioenez, arnasmune guztiak ez dira, gaur egun, “maila berean arnasmune”. Mailaketa horren arabera, euskarazko jardunaren nagusitasun handiko arnasmuneen eta nagusitasun apalagokoen artean bereizten du. Lehenak arnasmune *beteak* ditugu eta bigarrenak arnasmune *erasanak* (Zalbide, 2019: 18-22).

Arnasmuneak teorikoki zer diren argituta, nola erabaki gune bat (udalerrri bat edo eskualde bat, kasu) arnasmunea den edo ez, eta arnasmune izatekotan arnasmune betea edo erasana den? Zalbideren ikuspegi teorikotik abiatuta, kontzeptu horiek operatibizatzeko proposamena garatu dugu berriki (Iurrebaso, 2019), gaur egun Hego Euskal Herriko udalerriei buruz eskura dagoen informazio demolinguistikoa baliatuz. Bertan, biztanleria-zentsuen arabera euskararen etxeko erabilera % 60tik gorakoa den udalerriak jotzen dira arnasmunetzat. Horien barruan, arnasmune betetzat jotzen dira erabile-ra hori % 80a gainditzen duten udalerriak eta arnasmune erasantzat etxeko erabilera % 60-% 80 bitartean duten udalerriak. Irizpide horiek berak aplikagarriak dira kaleko erabileraren datuetarako ere.

Zer harreman dago lehen landu dugun diglosiaren kontzeptuaren eta arnasmuneen artean? Euskal Herrian diglosiarik egon ote litekeen aztertzen hasita hauxe dio Zalbidek:

(...) ezer izatekotan arnasmuneetako horixe da gure gaurko eta hemengo diglosia (...) horietan ere ez diglosia tradizional betea, baina bai menderik mendeko diglosiaren eskema nagusitik hain-hain urrundurik ez dagoen moldaera (...) hori da XXI. mende-hasiera honetara arte bizirik iritsi den euskal/erdal diglosiaren eszenarioa: eszenario nagusia eta ia bakarra. (Zalbide, 2011: 96)

Euskararen gaurko egoera ezagututa, etxean eta kalean euskarak presentzia ohargarria duen ingurumenetan diglosia eguneratu bat birmoldatzea eta hari indarrean eustea proposatzen du lehenengo erronkatzat, euskara oro har indarberritzeko aurrerapauso gisa. Aurrerapauso hori lortzeko bidean arnasmuneek berebiziko garrantzia dutela azpimarratzen du, diglosiak daka-

rren euskararen eta erdararen –kasu honetan, gaztelaniaren– konpartimentazio soziofuntzional nolabaitekoa berezkoa izan delako bertan duela gutxira arte (Zalbide, 2019). Konpartimentazioa badakigu nola gertatu izan den joan den mendeetan: erdarak irakurketaren, idazketaren, administrazioaren eta hezkuntzaren eremuak bete izan ditu, euskarak erabilera-eremu informalak (etxea, auzoa, lagun-giroa, kalea...) nagusitasun argiz betetzen zituen bitartean. Behinolako konpartimentazio hura asko aldatu da azken hamarkadotan. Euskaratik erdararako mintzaldaketa osoa gertatu da leku askotan, hasteko. Euskararen galera hain ondorio kaltegarria iritsi ez den kasuetan, bestalde, ahuldu (hainbatean kraskatu) egin da behinolako konpartimentazio zurrun hura: euskara eremu formaletan sartu da (irakas-kuntzan, administrazio publikoan, zerbitzuetan...) baina, aldi berean, bere-bereak diren jardunguneetan atzera egin du erdararen inpaktupean. Arnasgune askotan, orain gutxira arte bereak izandako hainbat eremutan (etxea, lagun-giroa, kalea...) ahulago ageri zaigu euskara; erdara indartzen ari da bertako eremu informalean. Aldaketa hori, etxeko erabileraren bilakaeran antzematen da nagusiki (Iurrebaso, 2019).

Arnasguneetako hizkuntza-ukipenak dimentsio bi dituela esan dezakegu: [gaztelania/euskara] bata, eta [batua/tokiko hizkera] bestea. Bigarren dimentsio horri buruz, euskara batuaren eta tokiko euskararen eremukako erabilerari buruz ez dugu datu askorik aurkitu. Hutsune hori betetzera dator, besteak beste, gure ikerketa.

2.5. Ondarroa: Bizkaiko arnasgunerik populatuena

Bizkaiko kostaldean dago Ondarroa, Lea-Artibai eskualdean. 8.593 biztanle ditu (Eustat, 2016) eta eskualdeko herririk handiena da. Bai Ondarroa eta bai Lea-Artibai osoa arnasgune dira, aipatu berri ditugun irizpideei jarraituta. Lea-Artibai da, Urola-Kostarekin batera, EAEko eskualderik euskaldunena (Iurrebaso Biteri, 2015). Ondarroa da arnasgunetzat jo ditza-kegun Bizkaiko udalerrien artean populatuena, eta Hego Euskal Herriko hiru arnasgune populatuenen artean dago (Azpeitia eta Azkoitiaren atzetik). Horrez gain, Ondarroa inguratzen duten herri guztiak dira arnasgune –Lekeitio, Berriatua eta Mutriku–. Hori garrantzitsua da Ondarroa euskal-

dun mantendu izana azaltzeko (Albizu eta Arana, 2018). Herriaren arnagune izaera deskribatzeko, 2016ko biztanleriaren estatistiken datuak ikus ditzakegu A. taulan:

A. taula. Etxeko hizkuntza, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna. Ondarroako hiztunak, 2016

	Kopurua	Ehunekoa (%)
Etxeko hizkuntza		
Euskara	5.466	63,6
Gaztelania	2.238	26,0
Biak	600	7,0
Beste bat	289	3,4
<i>Guztira</i>	8.593	100,0
Lehen hizkuntza		
Euskara	5.775	67,2
Gaztelania	1.769	20,6
Biak	474	5,5
Beste bat	575	6,7
<i>Guztira</i>	8.593	100,0
Hizkuntza-gaitasuna		
Euskaldunak	6.620	78,5
Ia euskaldunak	765	9,1
Erdaldunak	1.047	12,4
<i>Guztira</i>	8.432	100,0

Iturria: EUSTAT, biztanleria estatistikak, 2016.

Etxeetako erabilerari begiratuta, Ondarroako etxeetan euskaraz hitz egiten dute hirutik bik, eta lautik batek gaztelaniaz. Beraz, goragoko arnaguneen sailkapenari jarraituz, Ondarroa arnagune erasana dela esan dezakegu. Hizkuntza-gaitasunaren aldetik, bost hiztunetatik lau dira euskaraz ondo hitz egiteko gai. Hizkuntzaren transmisioari dagokionez, lehen hizkuntza euskara dutenak heren bi dira.

Kale-erabilerari buruzko datuek are argiago erakusten dute Ondarroan euskarak duen nagusitasuna: euskararen erabilera % 79,7koa zen 2016ko neurketaren arabera. Beste arnagune askotan bezala (Iurrebaso, 2019) gehiago erabiltzen da euskara Ondarroako kaleetan bertako etxeetan baino. Errealitate hau berri samarra da, duela gutxira arte etxea izan baita euskararen gotorleku nagusia.

B. taula. Hizkuntzen kale-erabilera Ondarroan, 2016

	Kopurua (behatutako hiztunak)	Ehunekoa (%)
Euskaraz	3.695	79,7
Gaztelaniaz	820	17,7
Beste hizkuntzetan	119	2,6
Guztira	4.634	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, erabileraren kale-neurketa, 2016.

Kale-erabilerari dagokionez, euskara gehien egiten dutenak haurrak (% 92,1) eta gazteak (% 92,9) dira. Helduen artean, elkarrekintzak hamarretik zazpi euskaraz izan dira (% 72,9). Antzeko emaitzak ikusi daitezke Albizu eta Aranaren (2018) ikerketan ere, umeen eta gazteen artean ikusi baitzuten euskararen erabilerarik altuena.

Dena dela, goragoko informazio-iturriek herriari buruzko datu orokorrak dakartzaten arren, Ondarroako nerabeei dagozkien datu zehatzak Jon Fernandezek (2019) egindako lanetik atera ditzakegu. Haren arabera, Ondarroan ikasten duten 16-18 urteko nerabeen ia hiru laurdenek lehen hizkuntza euskara dute eta etxeko hizkuntzari begiratuta, hamarretik zortzi baino gehixeagok euskara du etxeko hizkuntza (Fernandez San Martin, 2019). Balio horiek Ondarroaren arnagune izaera *erasan* eta *bete* arteko mugan kokatzen dute.

Arnasguneetako nerabeek hizkuntza ofizialetan izan dezaketen gaitasunari buruzko ikerketak gutxi dira, eta euskara batuaren eta euskalkiaren gaitasuna aztertzeke helburua duenik ez dugu aurkitu. Gauza bera gertatzen

da erabilera-eremuekin ere: nerabeek izan dezaketen euskara batuaren erabilerrari buruzko ikerketarik ez dugu aurkitu.

Hori horrela izanik, nerabeek euskaraz, tokiko hizkeran eta gaztelaniaz (ahoz zein idatziz) komunikatzeko dituzten gaitasunak neurtuko ditugu, *ezagutzazko galderak (knowledge questions* Peytcheva, 2019: 503) erabiliz, haien autopertzepzioak aztertuz. Azkenik, eguneroko bizimoduan hiru aldaerok zein eremutan erabiltzen dituzten ikertuko dugu.

3. Ikerketa-galderak eta hipotesiak

Gure ikerketaren helburu orokorra da, egungo arnaguneetan diglosiaren (eta, beraz, endodiglosiaren) eredu klasikoa aplikatu ahal izateko zantzurik aurkitu ote daitekeen aztertzerakoan, ekarpen enpiriko bat egitea. Komunitate batean (Ondarroan gure kasuan) diglosiarik baden edo ez aztertzeko, ezinbestekoa litzateke bertako adin-multzo guztien errealitatea aztertzea. Gure ekarpena mugatua izango da, hortaz: gai horretara hurbilpen xume bat egin nahi dugu, Ondarroako nerabeen errealitatea aztertuta.

Horretarako, nerabeen hizkuntza-gaitasunari eta erabilerrari buruzko errealitatea deskribatuko dugu, honako lau ikerketa-galderak erantzuten ahaleginduz:

1. Zein da Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasun erlatiboa, euskaraz eta gaztelaniaz?
2. Zein da Ondarroako nerabeen euskararen eta gaztelaniaren erabilera, erabilera eremuka banatuta?
3. Zein da Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasun erlatiboa, euskara batuan eta tokiko euskararen?
4. Zein da Ondarroako nerabeen euskara batuaren eta tokiko euskararen erabilera, erabileraeremuka banatuta?

Lau galdera horietako bakoitza hainbat hipotesi eta azpi-hipotesiren bitartez garatu dugu:

3.1. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa I: euskara eta gaztelania

1. Ondarroako nerabe gehienek gaitasun aitortu handiagoa izango dute euskaraz, gaztelaniaz baino. Hipotesi horri dagozkion azpi-hipotesiak:
 - 1A. gehienek euskaraz hobeto hitz egingo dute gaztelaniaz baino.
 - 1B. gehienek euskaraz hobeto irakurriko dute gaztelaniaz baino.
 - 1C. gehienek euskaraz hobeto idatziko dute gaztelaniaz baino.

3.2. Erabilera I: euskara eta gaztelania

2. Ondarroako nerabeek gaztelaniaz baino gehiago egingo dute euskaraz, ikerlanean aztertutako erabilera-eremu guztietan.
3. Diglosiari buruz esandakoa kontuan hartuta, gaztelania (*H* aldaera) indartsuago azalduko zaigu erabilera-eremu formaletan, eta euskara (*L* aldaera) indartsuago erabilera-eremu informaletan.

3.3. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa II: euskara batua eta tokiko euskara (Ondarroako hizkera)

4. Ahozko trebetasunetan (ulermenean eta mintzamenean) Ondarroako hizkeran *ondo* moldatzen direnak gehiago izango dira batuan *ondo* moldatzen direnak baino.
5. Idatzizko trebetasunetan (irakurmenean eta idazmenean) gehienek batuz gaitasun hobea adieraziko dute Ondarroako hizkeran baino.

3.4. Erabilera II: euskara batuaren eta tokiko euskararen (Ondarroako hizkeraren) erabilera

6. Nerabeek maizago hitz egingo dute Ondarroako hizkeran, euskara batuan baino.

7. Endodiglosiari buruzko azalpenak ikusita, euskara batua (*H* aldaera) indartsuago azalduko zaigu erabilera-eremu formaletan, ez-formaletan baino.

Hipotesi hauek balioztatu eta gero, ondorioen atalean, Ondarroako nerabeen hizkuntza-errealitatearen ezaugarriak laburbiltzeaz gain erabilera-datuei begiratuko diegu: batetik, euskararen eta gaztelaniaren arteko banaketa aztertuko dugu, eta, bestetik, euskara batuaren eta tokiko euskararen artekoa. Erabilera-molde horiek deskribatzeko *diglosia* kontzeptua egokia ote den analizatuko dugu.

4. Metodologia

Ikerketa honetarako erabili dugun metodologia kuantitatiboa izan da. Hartarako teknika, berriz, inkesta autoaplikatua. Jarraian, xehetasun nagusiak azalduko ditugu.

4.1. Unibertsoa, lagina, akats-tartea

Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleek parte hartu dute ikerketan: 14-15 urte inguruko nerabeak ditugu, beraz, aztergai. Ondarroako ikastetxeetan, bertako nerabeek ez ezik Berriatuakoek ere ikasi ohi dute. Berriatuako euskararen egoera Ondarroakoaren oso antzekoa da; arnagune izaera du Berriatuak ere. Ikerlan honetan zehar, “Ondarroako nerabeak” aipatuko ditugunean, izatez Ondarroako ikastetxeetan ikasten ari diren Ondarroako ikasle guztiez eta Berriatuako gutxi batzuek arituko gara. Izan ere, adin horretako Ondarroako ikasle guztiak ditugun arren, Berriatuako ikasle guztiak ez dute Ondarroan ikasten. Herri bien arteko arnagune izaeran desberdintasun txiki batzuk badirela jakinik ere, hizpide dugun gairako “Ondarroako nerabe” izenaren pean bildu ditugu guztiak.

Gure ikerketaren unibertsoa Ondarroako ikastetxe bietan matrikulatutako ikasle guztiak (92 lagunek) osatu dute. Datu-bilketa egunean falta izan ziren ikasleak tarteko, lagina 77 ikaslek osatu dute, horietatik 38 (% 49,4)

neskak eta 39 (% 50,6) mutilak izan dira; 62 (% 80,5) ikastetxe publikoak eta 15 (% 19,5) ikastolakoak; 69 (% 89,6) Ondarroa bertakoak eta 8 (% 10,4) Berriatuakoak. Ikasle hauek guztiek D ereduan ikasten dute.

Unibertsoa eta lagina aintzat hartuta, \pm % 4,5eko akats tartearekin egin dugu lan, % 95eko konfiantza-mailan eta hipotesirik kontrakoena kontuan hartuta ($p=q=0,50$ denerako, alegia).

4.2. Datuak biltzeko prozedura eta landa-lana

Landa-lana 2019ko maiatzean eta ekainean egin dugu. Norberak betetako galdetegiaren teknika erabili dugu. Aplikazioa banakakoa eta Internet bidezkoa izan da, eta ikasgela bakoitzeko (lau ikasgela guztira) parte-hartzaile guztiek aldi berean bete dute bakoitzari zegokion galdetegia. Aplikazioaren aurretik, ikasgelaz ikasgela joan gara parte-hartzaileei ikerketa aurkezteko, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatzeko eta agertu zitezkeen zalantzak argitzeko.

4.3. Galdetegia

Euskara batuaz idatzitako 41 galderaz osatu dugu galdetegia. Hona hainbat xehetasun:

Hizkuntza-gaitasunaz galdetzeko, hamasei galdera txertatu ditugu galdetegian, neurtutako lau aldaera (euskara –zehaztu gabe-, gaztelania, euskara batua eta Ondarroako hizkera) eta lau trebetasunetarako (ulertu, hitz egin, irakurri, idatzi), zentsuaren moldearekin bat datorren hiru aukerako eskala erabili dugu. Adibidez: *Zelan ulertzen duzu gaztelania?* -Bat ere ez/ Nekez/ Ondo.

Gaitasun erlatiboa neurtzeko, sei galdera txertatu ditugu, aldaera-pare bi (euskara/gaztelania eta euskara batua/Ondarroako hizkera) eta hiru trebetasunetarako (berba egin, irakurri eta idatzi). Kasu horietan ere hiru erantzun-aukera eskaini ditugu eta eredu honi jarraituz egin ditugu galderak: *Zelan idazten duzu hobeto, euskaraz ala gaztelaniaz?* -Gaztelaniaz/ Bietan berdin/ Euskaraz.

Erabilerak neurtzeko, hamasei galdera txertatu ditugu. Horrela, hainbat erabilera-eremu eta rol-harremanetan egiten duten erabileraz galdetu diegu. Lehenengo, bederatzi eremutan euskara-gaztelania erabilerari buruz galde-tuz eta ondoren, euskarazko erabileraren barruan, batuan eta tokiko euska-ran egiten duten erabilera zazpi eremutarako bereizteko eskatuz (neurtuta-ko eremuak zehazki zeintzuk izan diren emaitzen grafikoetan ikus daitezke). Erabilerari buruzko hamasei galderetan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Po-litikarako Sailburuordetzak bost urtean behin egin ohi duen Inkesta Sozio-linguistikoaren ereduari dagozkion bost erantzun-aukerak erabili ditugu. Hona adibide bat: *Zein hizkuntzatan egiten duzu berba lagunekin zaudenean? Beti gaztelaniaz/ Gaztelaniaz, euskaraz baino gehiago/ Euskaraz eta gaztelaniaz, berdín/ Euskaraz, gaztelaniaz baino gehiago/ Beti euskaraz.*

Azkenik, aldagai askeak txertatu ditugu: bizilekua (*Ondarroan/ Beste he-rri batean*), sexua (*Neska/ Mutila*) eta gurasoen jatorria (*Biak eskualdekoak/ Bat eskualdekoa eta bestea kanpokoak/ Biak kanpokoak*).

4.4. Erabilera-eremu bakoitzerako nerabeen batez besteko erabileraren kalkulua

Ikertu ditugun aldagaiak izatez ordinalak diren arren, erabilerari dagoz-kion galderen emaitzak zenbaki bihurtu ditugu. Horretarako, erabileraren erantzun-aukerak (“beti gaztelaniaz” aukeratik “beti euskaraz” aukerara doaz) eraldatu egin ditugu, euskararen erabileraren ehunekoa kalkulatu. C taulan ikus daiteke aldagaia birkodetzerakoan erantzun bakoitzari esleitu diogun balioa:

C. taula. Euskararen erabilerari buruzko jatorrizko galderetatik aldagai kuantitatiboa sortzeko irizpideak

Erantzuna	Euskararen erabileraren ehunekoa
Beti gaztelaniaz	% 0
Gaztelaniaz, euskaraz baino gehiago	% 25
Euskaraz eta gaztelaniaz, berdín	% 50

Erantzuna	Euskararen erabilera ehunekoa
Euskaraz, gaztelaniaz baino gehiago	% 75
Beti euskaraz	% 100

Horrela, parte-hartzaile bakoitzaren erantzuna ehunekotara ekarrita eta ehuneko horien guztien batezbestekoak kalkulatu, erabilera-eremu bakoitzean euskararen batez besteko erabilera kalkulatu dugu.

Irizpide berari jarraituz kalkulatu ditugu eremuz eremu Ondarroako hizkeraren erabilera-tasak.

5. Emaitzen aurkezpena eta hipotesien balioztatzea

5.1. Hizkuntza-gaitasun erlatiboa I: euskara eta gaztelania

Ondarroako nerabeek emandako erantzunen artetik, lau trebetasunetan euskaraz zein gaztelaniaz dituzten gaitasunei buruzkoak bildu ditugu *D. taulan*. Datuei begiratuta, nabarmentzeko moduko lehen emaitza hau da: nerabe gehienek esanean, bai gaztelaniaz eta bai euskaraz ondo moldatzen dira ikerlan honetan aztertutako lau trebetasunetan. Kasu guztietan, gutxiengoa dira bai euskaraz eta bai gaztelaniaz nekez moldatzen direla edo batere moldatzen ez direla erantzun dutenak.


D. taula. Hizkuntza-gaitasuna euskaraz eta gaztelaniaz.

Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)

	Ulertu		Hitz egin		Idatzi		Irakurri	
	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania
Ondo	97,4	93,5	94,8	74,0	92,0	80,5	90,9	90,9
Nekez	2,6	6,5	5,2	23,4	6,7	18,2	7,8	9,1
Batere ez	0,0	0,0	0,0	2,6	1,3	1,3	1,3	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	(77)	(77)	(77)	(77)	(75)	(75)	(77)	(77)

Gaitasun erlatiboari buruzko erantzunak 1. grafikoan aurkeztu ditugu. Argi ikusten denez, euskararen aldeko nagusitasuna agerikoa da ahozko gaitasunari dagokionez, baina ez idatzizko trebetasun biei dagokienean.

1. grafikoa. Hobeto moldatzen diren hizkuntza.
Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)



Taula eta grafiko horietako datuetan oinarrituta, lehenengo hipotesia eta bere baitako hiru azpi-hipotesiak balioztatu ditzakegu.

Lehenengo hipotesia (*Ondarroako nerabe gehienek gaitasun aitortu handiagoa izango dute euskaraz, gaztelaniaz baino*) hein batean bete da, baina ez erabat. Izan ere, hiru azpi-hipotesietatik bi (1A: *Gehienek euskaraz hobeto hitz egingo dute gaztelaniaz baino* eta 1C: *Gehienek euskaraz hobeto idatziko dute gaztelaniaz baino*) bete egin diren arren, bat baieztatu gabe geratu da (1B: *Gehienek euskaraz hobeto irakurriko dute gaztelaniaz baino*). Ikus dezagun:

1A azpi-hipotesia (*Gehienek euskaraz hobeto hitz egingo dute gaztelaniaz baino*) bete egin da: euskaraz gaztelaniaz baino hobeto hitz egiten dutela diote nerabeen heren bik (% 68,8); horien aurrean oso gutxi dira (hamarretik bat, % 9,1) gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direla diote-

nak; ia laurden batek (% 22,1) erantzun du berdin moldatzen direla hizkuntza biotan hitz egiteko orduan.

1C hipotesia ere (Gehienek euskaraz hobeto idatziko dute gaztelaniaz baino) bete egin da: euskaraz hobeto idazten dutela esaten dutenak (% 40,3) gaztelaniaz hobeto idazten dutela esaten dutenak (% 19,4) baino gehiago dira. Aldea, hala ere, ez da hitz egiteko gaitasunean jasotakoaren bestekoa; hizkuntza bietan idazteko gaitasuna parekoago ikusten baita. Multzo handiena (% 41,5) hizkuntza bietan berdintsu idazten dutela diotenen osatzen dute.


1B hipotesian (Gehienek euskaraz hobeto irakurriko dute gaztelaniaz baino), aldiz, espero genuen emaitzaren aurkakoa aurkitu dugu: gaztelaniaz hobeto irakurtzen dutela dioten nerabeak (% 31,2) gehiago dira euskaraz hobeto moldatzen direla uste dutenak (% 27,3) baino. Kasu honetan ere, multzo handiena (% 40,3) hizkuntza bietan berdintsu irakurtzen dutela diotenen osatzen dute.

5.2. Erabilera I: euskara eta gaztelania

Nerabeen erabilera-ohiturak eremuka aztertuta (ikus 2. grafikoa), hiru multzo nagusitan bana ditzakegu:

- Euskararen nagusitasun nabarmeneko erabilera-eremuak: euskararen erabilera % 90etik gorakoa. Multzo honetan sartzen dira ikaskideen arteko harremanak (euskararen batez besteko erabilera: % 97,4), irakasleekikoak (% 92,2), lagunekikoak (% 92,2) eta eskolaz kanpoko ekintzetakoak (% 90,4).
- Euskararen nagusitasuna argia izanda ere, gaztelaniak ere toki nabarmena duen eremuak: medikuarenean (euskararen batez besteko erabilera: % 79,2), etxean (% 78,3) eta sare sozialetan (% 73,1).
- Euskararen nagusitasunik gabeko eremuak: liburu, aldizkari eta abarren irakurketa (euskararen batez besteko erabilera: % 40,3) eta telebista ikustea (% 27,0).

2. grafikoa. Euskararen eta erdararen erabileraren batez besteko ehunekoak, erabilera-eremuen arabera. Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)



Gure hipotesietara itzuliz, bistan da zer pentsatzen genuen: Ondarroako nerabeek gaztelaniaz baino gehiago egingo zutela euskaraz beti, arnagunee-tan gaztelaniarenak izandako hainbat leku ere (eskola eta udal mailako zer-bitzu publikoak adibidez) azken hamarkadotan euskaldundu egin direlako. Hipotesi hori (2. *Ondarroako nerabeek euskara gaztelania baino gehiago erabili-ko dute aztertutako erabilera-eremu guztietan*) ezin izan dugu erabat baieztatu. Oro har, aztertutako eremu gehienetan nerabeen euskararen erabilera-tasa aski altua da (% 70etik gorakoa); euskara nagusi da errealitate sozialean funtsezkoak diren hainbat eremutan: eskola-giroan, lagunartean eta etxean, besteak beste. Hala ere, bi alorretan erdara da nagusi: telebista-kontsumoan (non euskararen erabilera % 27,0n gelditzen den) eta liburu-aldezkarren irakurketan (% 40,9). Ezin, hortaz, hipotesi hori guztiz baieztatu.

Erabilera-eremu formalak eta informalak aztertzen zituen hipotesia (3. *Gaztelania –H aldaera– indartsuago azalduko zaigu erabilera-eremu formaletan, eta euskara –L aldaera– indartsuago erabilera-eremu informaletan*) ezin dugu baieztatu. Aztertutako erabilera-eremuak formal-informal irizpidetik begiratuta, ez dirudi hizkuntzen erabilera-eremuon izaera formalago edo informalagoaren arabera aldatzen denik. Adibidez, oro har formaltasunari atxiki ahal zaizkion

eskola-giroko erabileretan du euskarak pisurik handiena, baina formaltasunari lotu ahal zaion liburu-aldizkarien irakurketan gainerako eremu gehienetan baino ahulago azaltzen zaigu euskara. Hara beste adibide bat: erabilera-maila bertsua aurkitu dugu medikuarenean (eremu formal argia) eta etxean (eremu informal argia). Ez dirudi, hortaz, behinolako formaltasun-informaltasun bereizkondeak erabakitzen duenik Ondarroako nerabeen hizkuntza-hautua.

5.3. Hizkuntza-gaitasun alderatua II: euskara batua eta tokiko euskara (Ondarroako hizkera)

Jasotako erantzunen artetik, euskara batuan eta tokiko euskaran (lau trebetasunetan) duten gaitasunari dagozkionak E. taulan bildu ditugu. Bai batuan eta bai tokiko euskaran, aztertutako lau trebetasunetan nerabe gehienek ondo aritzeko gai direla adierazten dute. Bada, ordea, salbuespen esanguratsu bat: nerabeen ia heren bik (% 63,6) zera dio: euskara batuan ondo hitz egiteko ez dela gai. Bestalde, neurtutako trebetasun guztietan gehiago dira Ondarroako hizkeran ondo moldatzen direla diotenak euskara batuan ondo moldatzen direla diotenak baino.


E. taula. Hizkuntza-gaitasuna Ondarroako hizkeran eta batuan. Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)

	Ulertu		Hitz egin		Idatzi		Irakurri	
	Ondarroakoa	Batua	Ondarroakoa	Batua	Ondarroakoa	Batua	Ondarroakoa	Batua
Ondo	100,0	88,3	96,1	36,4	90,9	79,2	96,1	87,0
Nekez	0,0	11,7	1,3	59,7	5,2	18,2	3,9	11,7
Batere ez	0,0	0,0	2,7	3,9	3,9	2,6	0,0	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (n)	(77)	(77)	(77)	(77)	(75)	(75)	(77)	(77)

Euskararen aldaera bietako gaitasun erlatiboa aztertuta, gehiengoak tokiko hizkeran hobeto moldatzen dela dio. Aldea oso handia da, bereziki,

berba egiteko gaitasunari dagokionez (% 89,5ek dio hobeto moldatzen dela tokiko hizkuntzan eta % 2,6k bakarrik dio hobeto moldatzen dela euskara batuan). Aldeak hain nabarmen ez izan arren, idazterakoan eta irakurtzerakoan ere gehiago dira Ondarroako hizkeran batuaz baino hobeto moldatzen direla diotenak (ikusi 3. grafikoa).

3. grafikoa. Hobeto moldatzen diren aldaera.
Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)



Formulatu ditugun hipotesiei helduta, laugarren hipotesia (*Ahozko trebetasunetan –ulermenean eta mintzamenean– Ondarroako hizkeran ondo moldatzen direnak gehiago izango dira batuan ondo moldatzen direnak baino*) baiez-tatu egiten dute inkestako datuek bete-betean: tokiko euskara ondo ulertzen dutela erantzun dutenak (% 100,0) gehiago dira euskara batua ondo ulertzen dutela erantzun dutenak baino (% 88,3). Mintzamenari dagokionez, tokiko euskaran hobeto moldatzen dira hamar nerabetik bederatz-i (% 89,5) eta oso gutxi dira (% 2,6 besterik ez) batuaz hobeto moldatzen direla diotenak.


Idatzizko gaitasunetan, berriz, ez da gure hipotesia bete (*5. Idatzizko trebetasunetan –irakurmenean eta idazmenean– gehienek batuaz gaitasun hobea adieraziko dute Ondarroako hizkeran baino*). Gure ustearen kontra, gehiago

dira Ondarroako hizkeran hobeto irakurtzen dutela diotenak (% 45,4), batuaz hobeto moldatzen direla diotenak baino (% 27,3). Eta gehiago dira, halaber, alde handiagoarekin gainera, idazterakoan Ondarroako hizkeran hobeto moldatzen direla diotenak (% 50,6), batuaz hobeto moldatzen direla diotenak baino (% 23,4).

5.4. Erabilera II: euskara batua eta tokiko euskara (Ondarroako hizkera)

Nerabeek euskaraz egiten dutenean erabiltzen duten aldaerari dagokionez, Ondarroako hizkeraren erabileraren ehuneko oso altua da aztertutako erabilera-eremu guzti-guztietan, 4. grafikoa ikus daitekeen bezala. Batuak toki gehixeago du irakasleekiko harremanean, (Ondarroako hizkeraren batez besteko erabilera % 84,9koa, batuarena % 15,1) eta medikuarekikoan (Ondarroako hizkeraren batez besteko erabilera % 79,5, batuarena % 20,5), baina eremu horietan ere tokiko euskara da askogatik nagusi.

4. grafikoa. Ondarroako hizkeraren eta euskara batuaren erabileraren batez besteko ehunekoak, erabilera-eremuaren arabera. Ondarroako DBHko 3. mailako ikasleak, 2019 (%)



Gaiari buruzko hipotesi biei dagokienez:

Seigarren hipotesia (*Ondarroako nerabeek Ondarroako hizkera gehiago erabiliko dute euskara batua baino, aztertutako erabilera-eremu guztietan*) guztiz baieztatzen dute datuek: tokiko hizkeraren erabilera nagusi da batuarekiko aztertutako eremu guzti-guztietan, alde handiarekin gainera.

Eremu formal eta informaletako erabilerak alderatzen zituen 7. hipotesia ere (*Euskara batua –H aldaera– erabilera-eremu formaletan, ez-formaletan baino indartsuago azalduko zaigu*) baieztatzen dute datuek: aldea oso handia ez bada ere, aztertutako eremu formalagoetan (irakasleekiko harremanean eta medikuarekikoan) gehiago jotzen dute batura eremu informagoetan baino.

6. Ondorioak

6.1. Euskara eta erdara Ondarroako nerabeen artean: alde nabarmenak erabilera-eremuen arabera

Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasunari eta erabilerari buruzko datuek, lehenik eta behin, udalerrri horien arnagune izaera baieztatzen dute. Datuek argi erakusten dute euskara dela bertako nerabeen artean hizkuntza nagusia: euskara da gehienek (ahoz behintzat) hobeto darabilten hizkuntza eta euskara da erabilera-eremu hurbilekoetan (lagunekin, etxean, ikaskideekin...) nagusi. Datu hauek bat datoz, bestalde, oro har, zentsu eta kale-neurketek eskaintzen dizkigutenekin.

Nahiz eta euskara nagusi izan, gaztelaniak ere toki esanguratsua du Ondarroako nerabeen artean: gehien-gehienak gai dira hizkuntza horretan aritzeko, bai ahoz eta baita idatziz ere. Are gehiago: irakurtzeko gaitasunari dagokionean, gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direla diotenak gehiago dira euskaraz hobeto moldatzen direla diotenak baino. Harritu egin gaitu datu horrek, kontuan hartuta Ondarroako nerabe gehienak etxetik euskaldun direla eta, eskolan ere D erduan ikasi dutenez, nagusiki euskaraz aritu izan direla euren prestakuntza-prozesuan. Lagin handiagoetan oinarritutako ikerketek joera kezagarri hau berretsiko balute, komenigarria izango litzateke errealitate horren arrazoieta sakontzea.

Nerabeen erabilerari dagokionez badu bere tokia gaztelaniak, jakina, baina toki hori bigarren mailakoa da aztertutako eremu gehienetan: orokorrean askoz gutxiago egiten dute gaztelaniaz, euskaraz baino. Horrela, euskara nagusi da nerabeen jardunean, hala nola ikaskideekin, irakasleekin, lagunekin eta eskolaz kanpoko ekintzetan daudenean. Horrela dira kontuak, maila apalagoan izan arren, medikuarenean, etxean eta sare sozialetan ari direnean ere. Salbuespen esanguratsu bi daude, ordea: liburu-aldizkariak irakurtzerakoan, batetik, eta telebista kontsumoan, bestetik. Horietan (telebistaren kasuan nabarmenago) gaztelaniazko kontsumoak pisu handiagoa du euskarazkoak baino. Erabilera-eremuetan euskararen erabilerak duen pisuaren hurrenkera hori bat dator, 2015. urtean Euskal Autonomia Erki-degoko DBH 2ko ikasleei buruz *Arrue* ikerketak (Martinez de Luna Perez de Arriba eta Suberbiola Unanue, 2017) aurkitutakoarekin. Zehazki, komunikabideetan eta kultur kontsumoan euskararen erabilerak duen maila apala konstante bat da gaiaren inguruan egindako ikerketetan.

Ondarroako nerabeetara itzulita: hizkuntza baten eta bestearen artean ba al dago diglosia-egoera baten berri emango ligukeen konpartimentazio soziofuntzionalik? “Konpartimentazio” hitzari hainbat testuinguru klasikotan lotu izan zaion banaketa zurrunik (eremu batzuetan euskaraz bakarrik, beste batzuetan erdaraz bakarrik) ez dugu aurkitu. Aztertu ditugun erabilera-eremu guztietan erabiltzen dira, gutxi-asko, euskara eta gaztelania. Alabaina, banaketa zurrunik ez badago ere, nerabeen eremukako euskara-erdaren erabilera ez da ausaz erabakitzen eta erabilera-eremuak zerikusi handia du hiztunen hizkuntza-hautuarekin, Ondarroako nerabe gehienek aldatu egiten baitute euren hizkuntza-hautua mintzakideen eta erabilera-eremuen arabera.

Zein zerikusi du erabileraren eremuz eremuko konpartimentazio horrek diglosiaren eredu klasikoak azaltzen duen goi-formal eta behe-informal mailako banaketa soziofuntzional teorikoarekin (Fishman, 1967; Zalbide, 2011)? Labur esanda, gaur egungo Ondarroako nerabeek ez dute euskara gehiago erabiltzen behe-informal mailako jardunean, ezta gaztelania gehiago ere goi mailako jardun formalean. Diglosia-egoera klasikoa ezaugarritzen duen elementu garrantzitsu hori, hortaz, aski itxuraldatuta ageri zaigu Ondarroako belaunaldi gazteenaren jardunean. Interesgarria izango litzateke,

alde batetik, nerabe horien gurasoek eta aitona-amonek gaur dituzten erabilera-ohiturak aztertzea eta, bestetik, azken urteetako erabilera-joeretan sakontzea, zeren horrela, Ondarroan (eta arnaguneetan) diglosia klasikoa galbidean den edo eraldatzen ari den erabaki ahal izango baikenuke. Ez dago esan beharrik, funtsezko zeregin horrek erabat gainditzen dituela gure ikerketaren helburuak.

Nerabeengana itzulita, zeren arabera azaldu daiteke, beraz, eremuz eremu datuek erakusten duten hizkuntza bien erabilera-maila banatua? Zerk azaltzen du euskara (eta gaztelania) gehiago edo gutxiago erabiltzea eremu batzuetan eta besteetan? Hipotesi gisa esan dezagun, eremuaren arabera erabilera aldatzeak zerikusia izan dezakeela eremu horietako bakoitzean hiztunak dituen benetako erabilera-aukerekin. Hau da, aurrez aurreko harremanetan, mintzakideen hizkuntza-gaitasunarekin (euskaraz egiteko gai diren edo ez) eta kultura-kontsumoaren kasuan, hizkuntza batean eta bestean dagoen kultura-eskaintzarekin. Izan ere, erabilera-maila altuenak mintzakide guztiak (edo ia guztiak) euskaldunak izango direla pentsatu daitekeen eremuetan aurkitu ditugu: ikaskideekin, irakasleekin edo lagunekin ari direnean. Euskararen erabilera-maila baxuagoa da euskara erabiltzeko aukera apur bat apalagoa den eremuetan, mintzakideen artean erdaldunen kopurua handiagoa baita. Hala nola, etxean (zentsuko datuen arabera Ondarroako etxeetan bizi diren hiztunen % 21,5 ez dira euskaldunak) edo medikuarenean. Ildo beretik, irakurketen eta batez ere telebistaren arloan euskarak duen erabilera apalak zerikusi zuzena izango luke hizkuntza bakoitzeko eskaintzarekin; gaztelaniaz dagoen eskaintzarekin konparatuta, euskarazko eskaintza askoz urriagoa (eta askotan nerabeek kontsumitu nahi dituzten produktu-moldeetatik urrunagoa) baita. Dena den, interpretazio hori hipotesi mailan utzi beharko dugu oraingoz, argia eman ahal izango diguten ikerketa berrien zain.

6.2. Batua eta tokiko euskara Ondarroako nerabeen artean: endodiglosiaren hasieran?

Euskararen aldaerak ere (batua eta tokiko euskara, zehazki) aztertu ditugu ikerketa honetan. Hara datu guztien lehenengo interpretazioa: nerabeen

erantzunen arabera, bai euren hizkuntza-gaitasunean eta baita euren erabileran ere, tokiko euskarak nagusitasun handia dauka. Konparazio bat eginenez, Ondarroan euskarak gaztelaniarekiko duen nagusitasuna baino erabatekoagoa da tokiko euskarak batuarekiko duena. Inkestan jasotako datuen arabera, jakina. Tokiko euskararen nagusitasuna hainbestearainokoa da, ezen indartsuagoa baita eremu guztietan, baita hasieran gure hipotesietan batuaren eremu berezkoagotzat jo genituen trebetasunetan (idazteko eta irakurtzeko gaitasunean) eta erabilera-eremuetan ere (irakasleekin, medikuarenean...).

Bestelako ondoriorik atera aurretik, auzi honetan gure datuek izan dezaketean baliozkotasuna zalantzan jarri behar dugu. Gizartea ikertzeko tekniken artean, inkesten berezko muga nagusietako bat da (inkesten datuak irakurtzerakoan inoiz begi paretik kentzea komeni ez dena) beti erantzun aitortuetan oinarritzea (Juaristi Larrinaga, 2003; Peytcheva, 2019). Horrela, zorrotz begiratuta, ikerketa honetan guk ez dugu jaso Ondarroako nerabeen hizkuntza-gaitasunaren edo euren erabileraren berri. Informazio hori zuzenean jasotzeko bestelako ikerketa-teknikaren bat erabili beharko genuke, gaitasun-froga objektiboak edo erabilera neurtzeko behaketa sistematikoak, esaterako. Horren orde, ikertuek euren hizkuntza-gaitasunaz eta erabileraz aitortutako informazioak osatzen du gure ikerketaren lehengai. Eta euren erantzunek ez dute zertan guztiz bat etorri benetan aztertu nahi dugun errealitatearekin, soziolinguistika arloan behin baino gehiagotan frogatu izan den bezala (Iurrebaso Biteri, 2012; Ó Riagáin, 2018). Gure kasuan, harritzekoa iruditu zaigu nerabeen erantzunek azaleratzen duten Ondarroako hizkeraren nagusitasun izugarria, nerabe gehienek tokiko hizkeran batuaz baino hobeto irakurtzen eta idazten dutela erantzun dutenean, besteak beste. Ez dugu, ordea, inongo bitartekorik benetan erantzun horien eta errealitatearen artean egon ote daitekeen alborapena zenbatzeko. Nolanahi ere, iradokitzen dugun moduko alborapenik balego, esan nahiko luke ikasleek direna baino “tokikoago” azaltzeko nahi kontziente edo inkontzientea dutela. Joera hori ez litzateke harritzekoa izango, beste ikerketa batzuk aintzat hartuta, behinik behin.

Horrela, alderdi kontzienteari begiratuta, nerabeen artean “Ondarroako tokiko euskaradun” agertzeak duen balorazio positibo argiaz edota euskara

batuaren balorazio ez hain positiboaz ohartu gaitzke, Eneritz Albizu eta Goizane Aranek (2018) adin-tarte ezberdinak aztertuz aurkitu zuten “tokiko euskararekiko harrotasunaren” ildotik. Zentzu berean, euskal hiztun *legitimoen* ikerketan Ortega eta bestek (2013) esandakoari jarraituz, ezaugarri bi dituzte euskaraz egiten duten hiztun berrien artetik *euskaldun* estatusa lortzen dutenek: euskara testuinguru informalean erabiltzeko gai dira eta euskalkia daukate. Euskal hiztun berriek *legitimotzat* zer jotzen duten ikusita, beraz, euskalkidun hiztunek (arnasguneetako biztanleek besteak beste) *hiztun legitimoa* zein den ikertzeak argi gehiago ekarriko luke, gure ikerketako datuetan azaldutako “tokikotasunari” buruzko azalpenetara. Aldaera biei buruzko iritzi eta jarrerak ez ditugu, tamalez, gure ikerketan landu. Ziur gaude emaitza mamitsuak eta interesgarriak eskuratuko lituzkeela gaia berriaz aztertuko lukeen ikerketa batek.

Dena dela, gaur-gaurkoz ez dakigu jarrera horiek zein neurritan duten zerikusia euskara batuan hitz egiteko (eta are ulertzeko) bost nerabetik hiruk adierazi dituzten mugekin (% 36,4k bakarrik erantzun dute euskara batuaz ondo hitz egiteko gai direla). Edonola ere, etorkizuneko ikerketek arnasguneetako nerabeek euskara batuaz jarduteko duten zailtasuna baieztatutako balute, zer pentsatua emango luke euskara batuaren irakaskuntzaren helburu eta lorpenei buruz.

Amaitzeko, eta endodiglosiaren gaiari zuzenean helduta, Ondarroako nerabeek euskaraz dihardutenean, tokiko euskara zein eremutan eta euskara batua zein beste eremutan erabiltzen duten aztertuta, ondorio nagusi bi ditugu: batetik, eta antzeko ikerketen (Fernandez San Martin, 2019) emaitzen bide beretik, tokiko euskara da nagusi aztertutako eremu guztietan, alde handiarekin gainera. Bestetik, eremuz eremu alde aipagarriak daude eta dauden alde horiek azaltzeko, endodiglosiaren eskema teorikoa erabili daiteke, oro har, euskara batua goi-formal mailako eremuetan gehixeago erabiltzen delako behe-informal mailakoetan baino. Datuek ez dute, ordea, gaur egun endodiglosia eredu beteaz hitz egiteko aukerarik ematen. Litekeena da, ordea, batuaren eta tokiko euskararen artean gaur egun erabile-*ra-eremuen* arabera ikusten diren alde horiek etorkizunean sakonduko balira, endodiglosiaren hasiera izatea gure ikerketa xume honek islatu duen Ondarroako egoera.

7. Bibliografia

Abathian, M. R., 2019, Language shift. In Darquennes, J., Salmons, J., Vandembussche, W. (ed.), *Handbücher zur sprach- und kommunikationswissenschaft / Handbooks of linguistics and communication science (HSK)*. 501-513. Berlin, Boston: De Gruyter.

Albizu Lizaso, E. eta Arana Arexolaleiba G., 2018, Bermeo eta Ondarroa. Hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak. *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 107, 133-164.

Baetens Beardsmore, H., 1989, *Principis bàsics del bilingüisme* (1. ed.). Bartzelona: La Magrana.

Baker, C., 1997, *Fundamentos de educación bilingüe y bilingüismo*. Madril: Cátedra.

Coyos, J. B., 2010, «Hizkuntza-ukipena», in Zarraga, A.; Coyos, J-B; Hernandez, J.M.; Joly, L.; Larrea, I.; Martinez, L.V.; Uranga, B. eta Bilbao, P., *Soziolinguistika Eskuliburua*, 135-184. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2018, «Euskara batua eta euskalkiak Ipar Euskal Herrian: inkesta perzeptziozko dialektologian oinarrituta», *Euskera*, 63 (2), 185-208.

Ferguson, C. A., 1959, «Diglossia», *Word*, 15 (2), 325-340.

Fernandez San Martin, J., 2019, «Ondarroako nerabeen hizkuntza ohiturak sare sozialetan. Kode alternantzia eta erregistroak», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 119, 41-85.

Fishman, J. A., 1967, «Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism», *Journal of Social Issues*, 23 (2), 29-38.

Garí, J., 1990, «El bilingüisme segons Aracil», *Anuari de l'Agrupació Borriana de Cultura: revista de recerca humanística i científica*, 1, 55-68.

Grosjean, F., 2015, *Parler plusieurs langues: Le monde des bilingues*. Paris: Albin Michel.

———, 2018, «Être bilingue aujourd'hui», *Revue française de linguistique appliquée*, XXIII (2), 7-14.

Iurrebaso Biteri, I., 2012, «Metodozko hainbat proposamen euskararen erabilera zertan den aztertze», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 84, 89-120.

———, 2015, «Udalerrri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnaguneak arriskuan», *EAE, 1981-2011. BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 95, 71-101.

———, 2019, «Hego Euskal Herriko Arnaguneak Zenbatzen. Arnaguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 110, 115-126.

Juaristi Larrinaga, P., 2003, *Gizarte ikerketarako teknikak: Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

———, 2018, «Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak euskal soziolinguistikan», *Euskera*, 63 (2), 299-322.

Kloss, H., 1969, «Types of multilingual communities: A discussion of ten variables», in Lieberson, S. (ed.), *Explorations in Sociolinguistics*. Bloomington: Indiana University, Research Center for the Language Sciences, 7-17.

———, 1976, «Über “Diglossie”», *Deutsche Sprache*, 4, 313-323.

Martinez de Luna Perez de Arriba, I. eta Suberbiola Unanue, P., 2017, *Arrue ikerketa: EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, 2011-2015. Txosten teknikoa*. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzua: Vitoria-Gasteiz.

Mioni, A. M. eta Arnuzzo-Lanszweert, A. M., 1979, «Sociolinguistics in Italy», *International Journal of the Sociology of Language*, 21, 81-108.

Moreno Fernández, F., 2009, *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje* (4. Ed.). Bartzelona: Ariel.

Ó Riagáin, P., 2018, *Measures of language proficiency in censuses and surveys : A comparative analysis and assessment*. Cham, Suitza: Palgrave Macmillan.

Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. eta Uranga, B., 2013, «Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: “nolako euskalduna naiz?”», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 87-88, 151-170.

Peytcheva, E., 2019, «Surveys», in Darquennes, J., Salmons, J., Vandenbussche, W. (Ed.), *Handbücher zur sprach- und kommunikationswissenschaft / Handbooks of linguistics and communication science (HSK)*. 501-513. Berlin, Boston: De Gruyter.

Sánchez Carrión, J. M. “Txepetx”, 1974, «Bilingüismo, diglosia, contacto de lenguas. Hacia una delimitación de conceptos. *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”*», 3-79.

Vila F. X. eta Boix E., 1998, *Sociolingüística de la llengua catalana*. Bartzelona: Ariel.

Zalbide, M., 2010, *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 2011, «Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 79-80, 13-152.

———, 2015, «Euskara indarberritzea, Mitxelenaren aburuz: noraino eta nola», *Euskera* 60 (1) 19-48.

———, 2019, «Arnaguneak: etorkizuneko erronkak», *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 110, 11-78.

Zuazo, K., 1992, «Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrerrez», *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”*, 25-48.

———, 2001, *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.